

EGUNKARIA



Unibertsitateko Kirol Karneta egitea 1.200 pezeta kostatzen da Arabako campusean, 3.500 Gizpuzkoan eta 3.550 Bizkaian.

KIROLA EHU-N

Kirola, aukerako ikasgai

EHUk kirola egiteko aukera eta abantailak eskaintzen dizkie ikasleei • Unibertsitateko karneta izateak zenbait kirol dendatan beherapenak lortzeko aukera ere ematen du

Inigo Olabarri • Leioa

UNIBERTSITATEA adimena hezteko tokia da izatez, omen. Hala ere, urteekin ikasleen gurariak asetzeko eskaintza zabaltzeko behar izan dira ikastegi handietan ere. Gurari horien artean dago kirola ere, esaldi sonatuak dioen bezala, adimena hezea eta gorputza hezea ez baitaude elkarrekin lehian.

Euskal Herriko Unibertsitateak abantaila interesgarriak eskaintzen dizkie kirola egiteko premia edo gogoia duten ikasleei. Alde batetik, campusetan kirol zerbitzuaren bitartez antolatzen dituzten ekitaldi eta lehiaketak daude. Batzuk campus bakar batekoak izaten dira, baina badaude Unibertsitate osokoak ere. Eskia, snowboard-a, squash-a, futbola, saskibaloia... Aukera zabala dute ikasleek.

Badira ikastaro bereziak ere, epe jakin batean edo egun jakin batzuetarako baino antolatzen ez dituztenak. Arrakastatsuak izan ohi dira, gainera. Gehienetan arrakasta hori modan dauden kirolak izateak edo naturarekin harremanetan egiteak ekar-

J.A. Gaskan, Altza kiroldegian; Bidebieta kiroldegian, Paco Yoldi igerilekuan eta Egia kiroldegian prezio bereziak eskaintzen dituzte ikasleentzat. Zenbait dendatan beherapenak izaten dituzte, bestalde, EHUko Kirol Karneta duten ikasleek; Deportes

teizen ere kirol dendek beherapen bereziak egiten dizkiete EHUko Kirol Karneta dutenei. Beherapen hori %10 edo %20koa izaten da. Gasteizen Unibertsitateko Kirol Karneta ateratzea 1.200 pezeta kostatzen da, eta urte guztirako balio du, uztaila eta abuztua izan ezik.

Bizkaian, Leioako campusak unibertsitateko gimnasioa dauka. Hura erabili nahi duenak hilean 1.600 pezeta oradaindu behar du. Unibertsitateko Kirol Karnetak 3.750 pezeta balio du, eta Bilboko Udal Kiroldegietan erabil dezake ikasleak. Leioako Sakoneta udal kiroldegia-

rekin eta Martiartu kiroldegi pribatuarekin ere hitzarmenak ditu

EHUK. Sakonetarako karneta 1.750 pezeta kostatzen da eta Martiartura sartzekoa 2.750 pezeta.

Unibertsitateak kirol erakinetan duen gabezia hori gainditzeko asmoz, kiroldegi berri bat eraikitzeko proiektua dute esku artean EHUko arduradunek. Beren aurreikuspenen arabera, eraikuntza lanak 2000. urteko urtarilean hasiko dira eta 2001. urteko lehen hilabeteak arte iraungo dute.

EHUren kirol karnetek Bilbo, Gasteiz, Donostia eta Leioako udal kiroldegia erabiltzeko aukera ematen dute

tzen du; rafting-a, hipika, puenting-a eta piraguismoa dira era horretako kirolekin aipagarrienak.

Kiroldegia merkeago

EHUk ez du kirolerako erakinetan aproposik bere campusetan. Gauzak horrela, udal kiroldegia erabiltzeko unean erraztasunak izaten dituzte Euskal herriko Unibertsitateko ikasleek.

Donostian, esate baterako,

Apalategin, Bicicletas Cometen, Easo Sporten eta Eusko Suben, hain zuzen ere. Unibertsitateko Kirol Karnet hori 3.500 pezeta kostatzen zaie ikasleei.

Gasteizko ikasleen kasuan, Udalarenak diren kiroldegietan kantxak alokatzea erdi-prezioan ateratzen zaie, eta Udalak antolatzen dituen ikastaroen tasetan ere beherapenak izaten dituzte; baita gimnasioetan ere. Donostian bezala, Gas-

laburrean

ARRASATE

Telekomunikazio arloko masterra abian jarri du Mondragon Unibertsitateak

Mondragon Unibertsitateak abian jarri du *Telekomunikazio Sistemen masterra: Telematika espezialitatea*, El Corte Ingles, Gaia eta Euskaltelen laguntzarekin. Mondragon Unibertsitateak adierazi dutenez, «master horren helburua da komunikazioen munduko irudi moderno eta eguneratua ematea, enpresen eta haietan lan egiten dutenen beharrezko erantzunez». Masterrean, enpresetan proiektu bat egiteko aukera izango dute ikasleek, haietan sortzen diren arazo nagusiak ezagutzeko.

GASTEIZ

Soin Hezkuntzako ikasleek beren egoera salatu dute

EHUren Gasteizko Soin Hezkuntzarako Euskal Institutuko ikasleek beren egoera txarra salatu dute prentsa ohar baten bidez: «Ikasturtea duela hilabete hasi arren, lau irakasle falta zaizkigu; ikasketak euskaraz egiteko zailtasunak ditugu; ikasketak bukatutakoan, bi urte irauten duen Egokitze Pedagogikorako Ikastaroa egin behar dugu; zenbait federaziok ez dituzte gure kirol espezializazioak onartzen; eta gure lan esparrua arautu gabe dago».

NAFARROA

Zientzialariak kazetarien beldur

Tim Grouth Smithek, ingurugiroan aditua den BBCko kazetariak, adierazi du zientzialariak ez dutela eskaintzen lantzen dituzten gaien informaziorik. Horren arrazoia da «arriskua» ikusten dutela, kazetariak haien lana «arinki tratatzeko arriskua». BBCko kazetariaren irudiko, erabaki hori «okerra» da; izan ere, herritarrei interesatzen zaizkie gai horiek. Adierazpenok Nafarroako Unibertsitateak antolatutako jardunaldietan egin zituen Smithek.